

FORMAKUNTZA

SUTEAK ITZALTZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

B.0



FUNDACION SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

Upabi Aldea, 2

T. 943 088.050

20240 ORDIZIA-GIPUZKOA

F. 943.088.051

e-mail: info@sueskola.net

Web: www.sueskola.net



SUTEAK ITZALTZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

Helburua:

Jardunaldia bukatutakoan parte-hartzaileak gai izango dira sute baten aurrean lehenengo eskuhartze baterako trebatu. Sua zer den eta bere prebentziorako eta aurre egiteko oinarrizko pausu eta bitartekoak ezagutzea.

Nori zuzendua:

Enpresetako langileak, lehenengo eskuhartze lantaldeak, larrialdi egoera batetan suaren oinarrizko elementuak ezagutu eta itzalgailu eta UHEak (Ur Hartune Ekipatua) eraginkortasunez erabiltzeko gai izan daitezten.

Programa:

- **1. modulua:** *Ikasgelan (Teoriko-praktikoa): Sua*
- **2. modulua:** *(Praktikoa): Sua, beroa eta kea.*
- **3. modulua:** *(Praktikoa): itzalgailuekin itzalketa.*
- **4. modulua:** *(Praktikoa): UHEekin itzalketa (Ur hartune ekipatuak).*
- **5. modulua:** *Ikasgelan (Teorikoa): Errepasoa eta ondorioak.*

SUTEAK ITZALTZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

Taldeak:
10-20 pertsona.

Iraupena:
4 ordu.

Ikastaroan zehar:

Ikastaroa burutzeko arropak banatuko dira. Erabilitako material guztia (itzalgailuak barne) Sueskolaren kontura izango da.

Aurretiko oharrak:

EZINGO DUTE IKASTAROAN PARTE HARTU :

-Haurdun dauden emakumeek.

-Arnas edo bihotz gaixotasunak dituzten pertsonak

BETAURREKOAK BAI:

Ahal izanez gero **lentillak EZ** erabili, betaurrekoak ekartzea eta erabiltzea hobe da.

ARROPA:

Aldatzeko arropa ekartzea gomendatzen da.

SUESKOLAKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Datu Pertsonalak Babesteko legedia betez, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** jakinarazi nahi dizu, eskaintza honetan azaltzen diren zerbitzuak eman ahal izateko **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** Tratamenduaren Arduradunaren papera hartuko duela eta **Bezeroaren** (Tratamenduaren Erantzulea) datu pertsonalak dituzten fitxategietan sartzeko beharra izango duela. Ekintza hori ez da joko datuen komunikaziotzat.

Datu hauek babesteko eta Datu Pertsonalak Babesteko Europako Arautegiaren 28. artikulua betetzeko asmoz, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** ondorengo konpromisoak hartuko ditu:

- Adierazitako zerbitzuak eskaintzeko baino ezingo ditu datuak tratatu. Datuen tratamendu hau Bezeroak emandako jarraibideak betez burutuko da. **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** ezin ditu xedatutako helburuak baino ez diren helburuarekin datuak erabili.
- Segurtasun maila egokia bermatzeko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-izaerakoak hartuko ditu, tratamendu-sistemaren konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia bermatzeko.
- Datu pertsonalak ez zaizkio hirugarren bati komunikatuko, non eta Tratamenduaren Arduradunak ez duen horretarako baimen zehatza edota zerbitzuak eskaintzeko edo legedia betetzeko beharrezkoa ez baldin bada.
- Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagokion segurtasun neurriak hartzeko. Era berean, pertsona horiek datu pertsonalak babesteari buruzko prestakuntza egokia jasoko dute.
- Behin bi alderdien arteko harremana bukatu denean, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** tratatu dituen datu pertsonalak eta dokumentuak Tratamenduaren Erantzuleari itzuli beharko dizkio. Tratamenduaren Erantzuleak horrela adierazten badu dokumentuak ezereztu beharko ditu. Hala ere, Tratamenduaren Arduradunak datuen kopia bat gorde dezake, baina, behar den bezala blokeatuta, zerbitzuaren prestazioak gauzatzeagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.
- Bezeroak datuak ikustea, zuzentzea eta ezerezteka eska dezake, baita, tratamendua mugatzea, tratamenduari aurka egitea eta datuen transferentzia ere. Interesdunak edonoz ezeztatu dezake bere baimena, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako, eskaera bat bidali behar da, idatziz, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa**, helbide honetara: Upabi Aldea, 2, 20240 Ordizia (Gipuzkoa) – info@sueskola.eus.